



Iruñeko III.
bertsopaper
lehiaketa

Antolatzaileak



Iruñeko III. Bertsopaper Lehiaketa. 2022

Saritutako lanak

AURKIBIDEA

A kategoria

(1.saria)

Iraun Zestau Telletxea. *Amilotxa* 3

(2.saria)

Araia Irigibel Terreros. *Lagunekin parrandan* 5

(3.saria)

Dorleta Larrayoz Osteritz. *Aliena* 7

B kategoria

(1.saria)

Kattin Madariaga Apaolaza. *Uda*..... 9

(2.saria)

Ziortza Goia Mitxelena. *Iruzkin pozoinduak*12

(3.saria)

Loitzate Goñi Elortza. *Gurasoak*14

C kategoria

(1.saria)


Ander Fuentes Mujika. *Iluntzean*.....16

(2.saria)

Eneko Fernandez Maritxalar. *Aurkia eta ifrentzua* 21

(3.saria)

Eider Azkoaga Gomez. *Erraietatik*26



IRAUN ZESTAU TELLETXEA

Amilotxa

A kategoria – 1.saria

Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak*

1.

Txantxangorri, amilotx, kaxkabeltz,
karnaba, buztan-gorria,
Amilotx urdinak egin zigun
Maiatz aldean kabia
zortzi arrautzatxo ñimiñoek
oskola beltz ta zuria
ama-aitek berotu zituzten
izan zen maitagarria

2.

Hamalau gau-egunen ostean
kixki-kaxka kraxkatzea
ta esfortzu aunitzen ondoren
loru zuten zulatzea
begi handi itxusi, itxiak
biluzik zeuden ordea
orduantxe sentitu zituzten
airea eta gosea

3.

Lumaxkaz betetzen hasi ziren
soinuak egiten ozen
gurasoek harrez elikatuz
zailak zirela asetzen
baina egun madarikatua
tamalez ailegatu zen
goizegi salto egin zuten ta
tristeki hotzez hil ziren

4.

Aurten inor ez dela etorri
bitxia da ikustea
amilotxak joan zirenetik
hutsik dela ohartzea
nahi nuke joan diren bezala
beste batzuk etortzea
gailupa, garrapo, buztankara..
kate honek segitzea



ARAIA IRIGIBEL TERREROS

Lagunekin parrandan

A kategoria – 2.saria

Gaur ostirala da ta
egingo dut jaia
Txantreako piszinan
koadrila alaia.
Festa bat egitea
haxe gure nahia
pozik deituko ditut
Malen eta Laia.

Musika jarri dugu
hasi gara dantzan
kantatu edo ez kantatu
jarri naiz zalantzan.
Txistorra eta xingarra
egin ditut plantxan
denok bukatu dugu
kristoren parrandan.



DORLETA LARRAYOZ OSTERITZ

Aliena

A kategoria – 3.saria

Doinua: *Mexiko, Kuba eta...*

Amonaren etxera
joan naiz jatera,
ama nirekin doa
gu biok batera.
Alien bat urbildu da
etxeko atera
eta guk hobe dugu
korrika atera!

Atera garenean,
amona izutu,
kobazulo batean
denok ezkutatu,
guztiak hor barruan
orduak pasatu.
Azkenean alienak
amona harrapatu.



KATTIN MADARIAGA APAOLAZA

Uda

B kategoria – 1.saria

Doinua: *Iparragirre abila dela*

Nahiz eta nahiko gogorra izan
den orain arteko guda
Kurtso oso bat pasa ondotik
igaro dugu helmuga
Ez al da pozgarria?
Alaitu aurpegia
Gure unea heldu da
Kopeta beltzak zuri ditzagun
iritsi zaigu ta uda

Ekaina iritsi ta gozatzeko
planak pila bat ditugu
Erokeriak nahi beste egin
ez hanka eta ez buru
Hartu oporren martxa
erreka ta hondartza
Ideiak mila inguru
Kurtsoan zehar amestu dugun
guztia egingo dugu

Arazo denak gainetik kendu
ta piztu umore ona
-Herri hontara joan gaitezke
-Bai, bertan ez naiz egona
Bestarik ez da falta
alde guztikin talka
Hil dadin azken neurona
Ta aurpegian igar dadila
daramagun zoriona

Behin uda hasi zaigunez gero
jarraitu behar haria
Bizitza biziz aterako da
barruan dugun nagia
Alferrenen antzean
lasai egon ohean
Hau da hauxe oparia!
Orain arteko sufrimenduak
merezi duen saria

Ikasturtea bukatu izanak
ez digu ematen pena
dibertsiorantz abiatzeko
badugu bide zuzena
irribarreak merke
egizu oihu fuerte
Eta igo bolumena
Lortu dezagun hau izatea
inoizko uda onena!!!



ZIORTZA GOIA MITXELENA

lruzkin pozoinduak

B kategoria -2.saria

Doinua: *Irun badaukazu zerbait*

1. Ispilu aurrean jarri
tanga nahi nuke luzitu
argazkia aterata
akats hauek ez banitu
huji filtroa paratu
ta begirada argitu
zuri bidaltzeko hainen
txarra ez zait iruditu
eguna luze joan da
etxe aldera abitu
notifikazioa ireki
irakurtzean harritu
iruzkinak ez bait dira
sarean soilik gelditu
nere barruko defentsak
pozoinez zulatu ditu

2. "Tapa zazu ipurdia
nor uste duzu zarela"
"puta", "urdanga", "itsusi"
"ipurdi handi", "ergela"
hau dena aditu eta
dena jarri da goibela
"ez egin kasorik hauei
ez zaitetz izan zimela"
burua lasaitzen saia(tu)
kendu aurpegitik umela
indarra atera eta
baztertu jende krudela
nahiz eta erreza ez izan
ezin segitu horrela
Nola desegin dezaket
nire buruko kartzela?

3. Begiratu etiketei
ta kaloriak kontatu
gaur ez dut deus afalduko
zertarako elikatu
gero hozkailua irentsi
jan ondotikan pekatu
pikutara bideoa
iruzkin ta erretratu
lehen jolas soil bat zena
orain malkoen olatu
arazo hauen hazia
nigan zenuen landatu
hondatuz nere amets ta
nere bizitza pribatu
argazkia zabaltzea
nik ezin dizut barkatu

4. Zuretz fidatu nintzen
lagun jator eta guapo
errealitatea ez da
pelikulan bezelako
guzti hau egin ta gero
ez zaitut faltan botako
ez dut bizitzen segi nahi
mundua daukat kontrako
egoeraz nazkatuta
balkoitik egin dut salto
agur zaudeten guztiei
bihotzean betirako"
akabo amets gaiztoa
bukatu zen beretzako
nik kontaktzen dizuet hau
berak ezin duelako



LOITZATE GOÑI ELORTZA

Gurasoak

B kategoria - 3. saria

Doinua: *Trumoaia ortzi beltzean oska*

1.Ni oraindik ban aiz gaztea
kirola egin ta ikastea
eztut bertze deus egiteko ta
beteta daukat astea (bir)
baina normala da batzuetan
gauzatxo batzuk ahanztea
joe ze kaka nahastea
guraso bihurtuko naizela
zaila da adieraztea

2. Haurtxoa jada hemen heldu da
momentu batez egin dut duda
baina burua ateri zaio
ta segituan eskura (bir)
mutikoa da, ttiki-ttikia
oraingoz ezta ardura
guztioak gaude gustura
polit-polita ateri zaigu
ongi etorri mundura

3.Jana ematen moldatzen gara
baina oraindik da hasiera
pardela aldatu txupetea eman
eta eraman parkera (bir)
gure etorkizuna ikusiz
ta begiratzuz aurrera
egin behar dut galdera
orain ongi da baina gerora
haurra problema ote da?

4. Batetik futbol gero pilota
frantsesa edo mateko nota
hurrei arropa garbitu eta
bada edozein lan mota (bir)
lasaitasunean egoteko
sei minutu asko jota
pultsazioak igota
hurrekin ezin da lasai bizi
ta jada nago itota

5. Orain arte dena kantu ta dantza
baina semeak datoz gorantza
ta lasaitasuna harrapatzeko
galdua dugu norantza (bir)
seme-alabekin ibiltzen gara
honantza eta harantza
ta du estresaren antza
hagitz polita zen larrosari
atera zaio arantza.



ANDER FUENTES MUJIKA

Iluntzean

C kategoria – 1. saria

Doinua: *Norbere mundu intimo / Elgeta*

1. Irakurriko duzuna
oinaze baten zioa
etengabe bihurtua
niretzat obsesioa
mina, tristura, dolua
pena, amorrazioa
nola itzali zaizkidan
poza eta pasioa
ez berritzeko luzaro
izan dut tentazioa
zuretza nik ez dakit zer
nire liberazioa
bertso bidez aitortzen dut
kontatzeko desioa
isilik eta pixkana
hil nauen depresioa

2. Gasa bailitzan pittinka
aldamenetik barrura
sartzen da eta sortzen du
habe sendoetan duda
arrazoi garbirik gabe
barrenak janez tristura
sentipen eza bihurtu
arte betiko ohitura
bizirauten saiatzean
eguneroko modura
ikusit nahi ez duena
ez urruti ez gertura
gizarte zuri honetan
mantendu behar itxura
aspaldi bizi baitugu
zorionaren diktadura

3. Murgildu eta itoa
sarri isiltasunean
dagoena onartzeko
beti ezintasunean
burua beti lanean
hain paraje urrunean
dena soinu bihurtzen da
hain paisaia lurrunean
agertokirik txarrena
eraikia garunean
nola amestu datorren
hurrengoko egunean
zer, zeinekin, noiz ta nola
berdin berdin zaizunean
esperantza hegan dabil
hil den etorkizunean

4. Zer eskatuko diet ba
eguzki ilargiari?
ze kolore mota gaua
eta egunsentiari?
berdin elurra, argia
euria ote du ari?
nire lagunak bostehun
edo akaso dira bi?
musika eta ahotsak
zertarako entzun adi?
kabiarra edo patata
inporta zaio tripari?
naturak eta kirolak
ze mesede gorputzari?
gusturik ez diot hartzen
lehen gozamen zenari

5. Gauzez maindire azpian
begi tristeenen negar
bizi-ez biziren arteko
aldea ahul eta mehar
burua ezin baikortu
ezaren bilduman zehar
atzoa ez duzu maite
ez duzu jaiki nahi bihar
mina hitzetan jartzeko
mingaina lotuta baldar
gorputz guztiko zainetan
sasi, arantza eta lar
eroritako mundu bat
dagoenean lehertzeaz
triste sentitzeagatik
errudun sentitu behar

6. Ikusi nahi ez denean
sortutako inertzia
hilkorra den ohituraren
aingura ere irentsia
besteen ongizatea
daukagu lehenetsia
haragiaz gain hezurra
ere bada gerezia
indiferentziaren zama
borondate gabezia
bizitza hau irautea
soilik dela sinetsia
amorrazio iturri
lehen zena berezia
iraultza berri baten zain
nengoen berantetsia

7. Ikusten duzun guztia
iruditua iraina
gero eta handiago
zulo beltzaren tamaina
sinetsita heriotza
dela honek dun ordaina
edo garestiegia
utziko dizun orbaina
tarteka saiatzen zara
alper alperrik da baina
ihes egin nahian zabiltz
ekidin nahian oraina
ozeano bizi baten
sare batean arraina
zerorri bihurtzen zara
preso ta kartzelazaina

8. Preso bihurtuta zure
goroldio eta huntzen
hasten zara egun denak
ezkortasunez ehuntzen
momenturik argiena
nahi gabe duzu iluntzen
hurbileko antiojoak
zergatik diren lurruntzen
ezin ulertuta zoaz
gozamenetik urruntzen
pentsatuta lehen ere
zoriona hain urrun zen!
munduarekin haserre
jarrera duzu zurruntzen
ukatzeak nahiz ez duen
sendabidean laguntzen

9. Lagun minak, senideak
bazter urrun baten uzten
dituzun bezala doa
pozaren hauspoa husten
bestalde bakardadea
gailentzen, harrotzen, puzten
lehen jositako hariak
korapilatuta hausten
bide berriak marrazten
nahiz eta saiatu eusten
hitz erdi batek dituzun
asmoak ditu zapuzten
itsututa zoazena
mamu hilkorak gorpuzten
beste guztiak zergatik
dituzu pozik ikusten?

10. Adituko duen norbait
harrapatu nahi baina nor?
jakinda zure aitortzak
duda lezakeela sor
entzuten duenari zerbait
gerora diozula zor
solasak joaten dira
axaleko eta idor
nahiz eta zure erraiak
dituzun minetan borbor
guztia etsipen duzu
dena pena eta zigor
arazoa handitzen da
bere azal eta zilbor
ez duzunean aurkitzen
ulertuko duen inor

11. Arazorik gabe duzu
arazo bat potoloa
ez dela inoiz pasako
daukazu errezeloa
inork ez du ba asmorik
zuri jotzeko txaloa
zure burua barkatu
izan umila, xaloa
ez ote duzun gizendu
juzku bat paraleloa
pentsatzen hasiz gero zerk
galarazten dizun loa
nork sortu du pozak ito
dituen txorimaloa
beste inork ez zerorrek
handitzen duzu zuloa

12. Noizbait sentitzen baduzu
dena doala gainbehera
eta bat-batean heldu
zarela infernu parera
ilargi beteenean
guztia dela ilbehera
geroak oraina inoiz
ez dakarrela hobera
gorputza eta arima
dituzunean minbera
ulertzen saiatu zaitetz
hola gutxi gorabehera
askok sentitzen dutela
zuk daukazun gauza bera
nahiz bakoitzak bizi bere
oinazeen arabera

13. Mina sortu ohi baitute
hainbeste amets zilegik
borroka erdi galduta
daukagulako lehendik
egunak joaten dira
etsipen handiz beterik
pentsatzen duzu ez al naiz
ba aterako hemendik?
erreza izanen denik
nahiz ta ez izan usterik
kolpetik sentitzen duzu
burrumba hori gorderik
etsi eta onartzean
ez dagoela besterik
jada ez daukazunean
beherago erortzerik

14. Kontuz zure buruari
zer esaten dizkiozun
ahal denean bihurtu
gutxiespena maitasun
lore bihur bailiteke
sentitzen duzuna asun
hobetzeko aukera bat
berez dena estutasun
tristuraren zimikoa
ere bada alaitasun
zu zarena onartzea
ze poz eta lasaitasun
zoria bideratzea
bihurtuta eginkizun
mundua aldatzen baita
nondik begiratzen duzun

15. Denbora luzez nahiz duzun
sentitu ezin asean
bizitza zintzurretik nahiz
nekez duzun maiz pasea
nahiz ez uste pasako da
sufritze honen fasea
nahiz amets gaiztoetatik
kostatzen den esnatzea
argia piztuko dela
komeni da pentsatzea
gairiditu dezakezula
barreneko oinazea
sinetsi helduko dela
noizbait aldeko haizea
posible dela lurpetik
berriz ere hegatzeko

16. Hegalak astinduz hegan
partiturik zerurantz
atzean gerra-zelai bat
dena ke, dena triskantz
kazetari baten gisa
hauxe nire testigantza
kontatu edo ez lehen
izan zuena zalantza
korapiloak askatze
hori mesede da antza
nahiz odolez bustia den
oraindik bihotz arantz
pauso baldarrean baina
berriz egin nahian dantz
sabeleko tximeledek
aldatu dute norantz



ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR

Aurkia eta ifrentzua

C kategoria – 2.saria

*“Ilusioak izaten jarraitzea da
nire ilusiorik handiena”*

Doinua: Izarren Hautsa

1. Zenbat alditan aurkitu garen
trokartearen ertzean
errealitatez mozorrotzen den
fikziotik ihesean
Une horietan zein da laguntza?
Zeinek bultzatzen gaitu goruntza
egonik noraezean?
Nahiz ta bizitzak sarri ez utzi
tesitura errazean
denak aurpegi hobea dauka
emozioak lehertzean
kostatu zaigu konturatzea
ez dela zaila begiztatzea
bizitza zuri beltzean
ilusiorik ezean

Doinua: Nechoiz ez da senditzen

2. Hizkuntzak zein zientziak
edo matematikak
Eskolak bihurtuak
edukien fabrikak...
Egin ondotik herriko
ikastolan praktikak
ume zoriontsuz bete
nahi nituzke karrikak
ilusio erloju
orratzek tik, tak, tik, tak...
zaharkitua iraultzeko
gazte baten taktikak

3. Ikaslea harturik
zenbakia bailitzan
adimen lokartuak
eta begiak PISAn...
Urteak nituen maisu
bihurtzeko peskizan
desertu batean haize
freskoa nahi dut izan
haurren aurrera heldu
den helduaren gisan
beti ume izan nahian
nagusien bizitzan

4. Ederki dakit maisu
lana ez dela mauka
sistema zahartu baten
lokatzetan iraulka
Zenbaitzuk etsipenaren
bidea dute hauta
nik aldiz gustukoago
dut kometaren pauta:
lehenik aireratzeko
arazo aunitz dauzka
baina hegan egiten du
haize boladen aurka

5. Batzuentzat soilik da
oporak ta soldata
niretzat iritsi da
iraultzaren etapa
baztertu nahian azalpen
magistralen matraka
haurren jakinmina piztu
nahi nuke pixkanaka
ta ametsei ez jarri
amaieraren data
deus ez denean ziurra
dena posible da ta

6. Hortaz, eman beharko
ditut hainbat "zartako"
zenbait klaustrotan zenbait
lotan dagoelako
Lotsa eta beldur gutxi
eta ideia franko
berrikuntzetatik gertu
ta ohikotik eskapo
eskolari astindu
latza eman beharko
ilusioa atzarrik
amestea delako

7. Garun zurrunduak ta
altzairuzko gerriak
inmobilismo trazak
aspaldi igerriak
Neguak baldintzatu ohi
ditu udaberriak
baina San Martinen beldur
bizi dira txerriak
Hargatik biak zaindu
behar ditu herriak
esaera zaharrak eta
belaunaldi berriak

“Etsipena, zein hitz tristea! Eta tamalez
gelditzen zaidan aterpe bakarra”

Doinua: Izarren hautsa

8. Isuritako malkoak eta
botatako izerdiak
kolperik kolpe urteen karga
nabari du aurpegiak
lurrun bihurtu ohi den ametsa
ta onartzea ez da erreza
min ematen du egiak
Nahiz normalean antonimotzat
hartzen ditun hiztegiak
nahiz ta lotura begiztatzeko
itxirik dauden begiak
atzoko poza ta gaurko pena
ilusioa ta etsipena
garaipenak, miseriak
txanponaren alde biak

Doinua: Nik zonbat pertsu alde

9. Urteak joan dira
hamar bat inguru
lkasgela, arbela
aulki ta liburu
ametsekin jolastu
nahirik buruz buru
gaur dena frustrazio
dena estakuru
Sisteman sartu ginen
iraultza helburu
ta_azkenean sistemak
irauli gaitu gu

10. Nahiz ailegatu nintzen
zikloi bat bezala
lehentasunak aldatu
ziren berehala
emaitzen presioa
beldurren itzala
Diagnostikoak eta
azterketak hala!
Gaur onura bakartzat
oporak, jornala...
ta okerrena da nik
baimendu dudala

11. Kaltetu gisa haurra
duen prozesua
gure_erosotasuna
beraien kexua
Tradizionala bada
maisuen mezua,
mugatzen dugunean
irudimentsua
eskola batek galtzen
du bere zentzua
Aurkiak beti dauka
bere ifrentzua

12. Hurreratu nintzena
askapen egarri
pandemia garaian
zeinen barregarri
polizi gisa jardun
naiz buru belarri
aniztasun garaian
eskola elbarri
nahiz neurria kanpotik
ziguten ekarri
maskarak kendu nahi ta
musukoak jarri

13. Nahiz umeen beharrak
dauden betetzear
ikaskuntza pisutsu
ta beldurrez mehar
Autoritarismoa
oihu, zigor, negar...
bihotzak erauzirik
buruak lehertzear
Eskolak ez al zuen
lehen urtetan zehar
zoriontsu izaten
irakatsi behar?

14. Mahai bati itsatsiak
hamaika eskolau
hausnartzea delitu
disziplina arau
Heroi behar zuena
bihurtu da bilau
nahiz ta etorkizuna
helduko den rirau
tamalez iraganak
orainean dirau...
Handi gelditzen zaigu
txikien mundu hau



EIDER AZKOAGA GOMEZ

Erraietatik

C kategoria – 3.saria

Doinua: Goizean altxatu eta / Mexico lindo

1. Lore artean sarritan
arantzak ere badira,
sastrakaz inguraturik
non ote alternatiba?
Erraz soma dakioket
begi bustien dizdira,
azkartu egin zait arnasa
korapiloa eztarrira.
Mundua gris bihurtu da
ospitaletik begira,
beldur naiz izango ote den
betirako despedida. (bis)
Ez dut jokatu nahi baina
hastear dago partida.

Doinua: Oraindik hango oihartzun hots bat / Naiari

2. Behin gurasoek bilatu zuten
notizirako tartea,
inpotenziari kolpe latz batez
ireki nion atea,
ikasi nuen zer den absurdo
eta zer inportantea:
aitak nahitaez egin behar zuen
gibelego transplantea.

3. Hamaika mundu, hamaika aukera,
bizitzaren loteria;
norberak dauka bere bidea
norberak bere egia.
Gaurkora arte nirea izan da
erreza, soil, huskeria.
Atzean ditut hamasei urte,
aurrean amildegia.

4. Labirintotik ezin atera
egin ditut saiakerak,
bazter denetan bilatuz nabil
larrialdi-irteerak.
"Zergatik, nola, eta noiz arte?"
buelbaka ditut galderak.
Gaurkoan ni naiz zaintza lanetan
aldatu zaizkit paperak.

5. Bor-bor su txiki epelean, hor,
minak eta desioak,
sarri elkarren aurkako eta
sarri kontradikzioak,
hamaika forma eta bertsio,
finte, kolorazioak;
sabelaldean guztiak ditut,
borborka emozioak.

6. Irudimena dohaina duzu
oreka-galtze laburra,
borrokan luze ibiltzen gara
suari botaz egurra,
listua irentsi, alferrik baina,
lehorra daukat zintzurra.
Bide honetan laguna zaitut:
ongi etorri, beldurra.

7. Noizik behinean zabaltzen diot
nostalgiari atea:
gogoan daukat zurekin, aita,
maite nuela joatea
mendian gora eta txoriak
prismatikoz ikastea.
Zinez behar dut iragana gaur
orainaldi izatea.

8. Hildako batek bizitza dakar
dohaintzaren paradoxa:
emailearen azken taupadak
sorrarazten duen hotza,
era berean berotuko du
hartzailearen bihotza.
Ondoz ondoko katebegi bi
bizitza eta heriotza.

9. Beste urte bat gibelaren zain
gaur berriz da urtarila.
Gaixotasuna aurrera doa
dekadentzian, isila.
Asteak luze bihurtu dira
aldaketa baten bila,
hortzak estutuz desiratzen dut
lehenbailehen etor dadila.

10. Ospitaleko gela arrotza
zurrunbilo baten motor,
senti naiteke sarritan ahul,
talkoaren gisa hauskor;
aldi berean buruz behera
diamantea bezain gogor.
Ohe ertzean hausnarketa bat:
nik egon nahiko nuke hor.

11. Bederatzitan altxatu eta
hemen naiz atzoko gisan,
ate xume bat irekitzea
inoiz ez da hain zaila izan.
Sartuz irri bat marraztu egin zait
izpi txiki bat bailitzan,
eskuak estu heldu dizkizut
gure indarrak lagun gaitzan.

Doinua: Goizean altxatu eta / Mexico lindo

12. Ezustean ate hotsa,
ustekabez ziaboga.
Zeladorearen hitzak:
"Bagoaz kirofanora".
Gibelaren zain geundela
motel pasa da denbora,
azkartu egin zait bihotza,
beldurra zainetan gora.
Oreka mantenduz, aita,
hurbildu natzaizu ondora:
"Maite zaitut, geroarte!"
besarkada bat gustora, (bis)
"Bihar goizean berriro
eguzkia aterako da!"